

Txostena Bherria Topaketa 2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



TO PA KE TA

Aurkibidea

- 3 **Bherria.**
- 4 **Agur instituzionala.**
- 5 **Bherria Topaketa 2021.**
- 6 **#LoQueViene: RESET.**
- 9 **Lankidetzako ikerketak:**
 - 13 Berrikuntza publiko eta soziala etorkizun komun bat eraikitze aldera uztartuak.
 - 19 Nola sortu lankidetza-esparruak bilbe komunitarioekin Administrazio Publikotik.
 - 28 Zainketa eta osasun mentalaren erkide baterantz: gakoak lankidetza publiko-sozialetik.
- 35 **Bukatzeko gogoeta bat.**
 - 36 Topaketaren balorazioa.
- 38 **Proiektuak eta parte-hartzaileak.**

Bherria

Bherria Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera, bultzaturiko programa berritzailea da, eta horren helburua da Administrazio Publikoaren eta herritartasun aktiboaren arteko lankidetza publiko-sozialaren modu berriak ikertzea eta sustatzea.

Bherriak lankidetza-esperientzia bat eskaintzen die Euskal Administrazio Publikoan erantzukizun politikoa eta teknikoa duten pertsoneri, ezagutza baliagarria, praktikoa eta aplikagarria eskuratzeko, abian dauden proiektuak kontratatuta; ekimen emergente eta inspiratzaileekin harremanetan jarriaz; beste pertsona batzuekin batera gogoeta egiteko eta ikasteko konfiantzako espazioak erraztuaz; kezka bera partekatzen duten hainbat eragileren arteko sarea eraikiaz; partekaturiko kontakizuna eraikitzeke komunikazio-estrategiak landuaz; eta sistemizazio irekiko maila handi bat izanaz, proposamena erreplikatu ahal izateko.

Agur instituzionala

Gizarte konplexuetan bizi gara, aldaketa etengabeak eta sakonak dituzten gizarteetan, eta erakundeok jakin badakigu gai publikoak modu eraginkorrean kudeatu behar badira, gobernatzeko modu erlazional bat behar dela, hurbilagoa dena eta herritarren premia eta arazoei erreparatzen diena, eta baita irekiagoa ere, herritarren bizi-baldintza kolektiboak hobetzeko sortzen dituen irtenbideetara.

Esperientziari esker, badakigu Administrazio Publikotik jarduteko gaitasunak urrunago iristea lortu duela, gizartea mobilizatu izanez gero. Kezka hori ez da berria. Historikoki, herri-erakundeek eta tradizio luzekoek (auzolana, adibidez), bizikidetzak antolatu eta lurraldeko herri-baliabideak kudeatu dituzte.

Eta, hain zuzen ere, kezka horri erantzuteko, politika egiteko gure moduan bizirik jarraitzen duenez, Bherria sortu da. Urratsak ematen ari gara benetako erronketan oinarritutako formula berrietarako bidea irekitzeko. Eta elkarlana egiteko modu horrek bere inplikazioak ditu erakundeen eta gizartearen eta, beraz, horiek osatzen dituzten pertsonen eraldaketa-prozesuetan.

Urte hauetan guztietan, Bherrian, udal-teknikarien larruan jarri gara, eta erakundeak lankidetzako gobernantza-eredu batera irekitzerakoan aurrean zer-nolako zailtasunak dituzten ikusi dugu.

Lankidetzak-prozesuek dituzten mugak, konpromisoak eta konplexutasuna alde batera utzi gabe, horien bidez erakundeak eta herritarrek etengabe ikasiaz, inoiz baino gehiago jabetzen gara garrantzitsua dela sareak ehuntzea eta honelako espazioak sortzen jarraitzea, guztion artean gizarte zuzenago eta solidarioago bat eraikitzen laguntzeko. Horretarako, beraz, lankidetzaren kultura sustatzen jarraitu behar dugu.

Ahulezia eta kontraesan eta guzti, dauden erronka nagusiei laguntzeko eta horiek bultzatzeko gai diren aliantza ezberdinetako politika bat eratzen ari da, are gehiago pandemia iritsi ondoren. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken Sailean ziur gaude erronka garrantzitsuei soilik erantzun ahal izango diegula herritarrekin batera bagoaz.

Marian Olabarrieta

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako zuzendaria

Bherria Topaketa 2021

Bherria Topaketa 2021 lanerako jardunaldi irekia da, formatu digitalekoa, eta “Lankidetza publiko-soziala larrialdi-egoeretan: erronka berriei erantzuteko gakoak” tituluarekin xedea izango da larrialdi-egoeretan erantzun komunitarioak eraiki dituzten proiektu zehatzak aztertu eta horietatik ikastea (esate baterako, COVID-19ak sortutakoa), Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko lankidetzatik.

Topaketa urriaren 14an egin zen, eta 50 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Horrela, gako horiek ezagutu genituen eremu ezberdinetako 15 lankidetza-esperientziaren analisi sakonean oinarritutako hiru ikerketaren bitartez. Modu horretan, esperientzia horien azterketak aurkezten zaizkigun galdera askori erantzuna aurkitzen lagunduko digu: Nola sortu dira herritarren elkartasun-ekimenak? Zein beste egituratan babestu dira? Nola sortzen dira sinergiak egituratuagoak edo publikoagoak diren ekimenekin? Zein izan da ekimen horien ibilbidea? Lan horretan nola erabili dute teknologia? Nola jarrai dezakegu lankidetza-bideak ikertzen?

Hiru ikerketa horien aurkezpenaren aurretik, esparru-ponentzia bat izan genuen Antoni Gutierrez-Rubiren eskutik, aholkulari politiko eta komunikazio-aditua.

TO PA
KE TA

#LoQueViene: RESET

ANTONI GUTIÉRREZ-RUBÍ



#LoQueViene: RESET

"Ura irakiten hasitakoan, sua itzaltzeak ez du jada batere balio".
Nelson Mandela

Hegakortasunak, ziurgabetasunak, konplexutasunak eta anbigutasunak markatutako garaiak bizi izan genituen jada 2019an. VUCA garaiak, ingelesezko akronimoarengatik. Ikusi dugu iraganeko gertaerak jada ez direla etorkizunaren iragarle, eta horrek zaildu egiten duela aurreikustea eta erabakiak hartzea, etengabe berrasmatzera behartzearekin batera. Atzoko irtenbideak ez dira baliagarriak gaurko eta biharko erronketarako. Arazoen konplexutasun-maila eta erantzun posibleen aldakortasuna areagotzen dira.

Pandemia medio, mesfidantza, ziurgabetasuna eta iraganarekiko nostalgia handitu dira. Etorkizuna aurrerapenaren uste sendoa ez denean, amesgaizto bilakatzen da eta nostalgia nagusitu antsietateak eta beldurrak baretzeko. Beldur horiek globalizatu egiteaz gain, egoera sozialak zehazten dituzte. Martha Nussbaum-en hitzetan: "Beldurrak zentzuzko deliberamendua blokeatu ohi du, itxaropena pozoitu eta lankidetza eraikitzailea galarazi etorkizun hobe baten alde, [...] geure burua gainditzera eta modu berekoian, zuhurtziagabea eta antisozialean jokatzera eramaten gaitu".

Testuinguru horretan, gizarte urduriak azaleratzen dira, eta alderdi politikoa eta soziala zein giro emozionaletan garatzen diren ulertzen jakitea funtsezkoa da gure oraina interpretatu ahal izateko. Orainaldi honek bere tirania inposatzen du, eta berehalakoak, laburrak eta azkarrak trinkoari eta motelari irabazten dio; hots, kantitateak kalitateari.

Etorkizunaren ideiaren gainean oraina gailentzen da. Ideia hori gizarte-aldaketarako estimulu indartsua izan ohi zen, aurrera egiteko lekua, denborazko espazio baten helmuga eta konkista, gure helburuak, ekintza politikoa medio erronka bilakatuta, lorpen eta eskubide bihur zitezkeen espazioa.

Gaur egun, beharrezkoa da etorkizuna berreskuratzea herritarren ilusioa berreskuratu nahi badugu. Berrirori pentsatu behar dugu, imajinatu eta eraiki edozein proiektu politiko eta sozialerako energiak dinamizatzeko eta sortzeko espazio gisa.

Ez da helburu erraza; izan ere, erakundeekiko eta lider sozialekiko deskonfiantza orokorra areagotzen ari da mundu osoan, eta ahultasun demokratikoko eta aginte moral, politiko eta instituzionalaren pitzadurako egoera iraunkor batera eramaten du. Ezegonkortasuna gero eta handiagoa da kezka gisa, eta elementu ezegonkortzaileen uztartze leherkorra gertatzen da

pandemiaren ondorengo egoera honetan krisi ekonomikoak, sozialak eta politikoak marrazten duten perimetroarekin.

Funtsezkoa da irtenbideak eskaintzea eta itxaropenik gabeko aldarte bat, etorkizunean konfiantzarik ez duena, bideratzea, modu honetan:

- Lidergo-eredu berriak landuta, sentikorrangoak, enpatikoagoak, eskuzabalagoak, lankidetza handiagokoak, zeharkakoagoak, eraginkorrangoak,...
- Harremanetarako dinamika berriak aztertuta, benetako garrantzia duten ekimen kolektiboetara eramanez.
- Entzute aktiboa aplikatuaz, batzuen eta besteen zeregin erabakigarria ezagutzeko, "gu" bat eraiki aurretik.
- Harreman iraunkorrak eta irismen handikoak ehunaz, partekaturiko interesetatik abiatuta komunitateak sortuaz.
- "Kaxatik kanpo" pentsatuaz, sormena eta berrikuntza bultzatzeko.
- Asmo argi bat definituta.
- Dimentsio sozialari inoiz baino gehiago balioa emanaz eta partekaturiko alderdi publikoaren espazioa definituta, talentua, sinergiak eta eraginkortasuna gehitzeko.

#LoQueViene-ri (datorrena) aurre egin eta benetan reset bat burutzeko, ezinbestekoa da interes orokorraren aldeko itun bat egitea, benetako errentagarritasun

iraunkorra guztion onura baita. Ezin zaie erronka handiei aurre egin inplikazio eta konpromiso kolektiborik gabe. Eta politikatik herritarrengana zubiak eraikitzea bezain beharrezkoa da konpromisoa eta horren indarra batzea, gizartean eginkizun politiko handiagoa gure gain hartuta.

Gizarteak, oro har, jokatu egiten du: hamar urte baino gutxiago gure ekoizpen- eta energia-eredua aldatzeko eta trantsizio ekonomiko, sozial eta ekologiko hirukoitza egiteko. Eta erronkak asko dira: politikan herritarren konfiantza berreskuratzea eta erakundeak birlegitimatzea; kontratu sozial barneratzaile eta solidario berri baterantz aurrera egitea, aurkezten zaizkigun erronkei aurre egiteko gai dena; eta aldaketa kulturala eta eredu politikoaren eta sozialaren aldaketa bultzatzea, mikrotik makrora, nitik gura.

Aurrerapenaren aldaketa horiek hobeto iristea eta pertsona guztiengana heltzea nahi badugu, adostasun eta parte-hartze kolektiborako espazioak behar ditugu. Espazio zabalak, abegikorak, gainditzailak,... elkarrekin gogoeta egin eta zein puntutan gauden eta norantz joan nahi dugun ikusteko.

Lankidetza, ongi ulertutako elkarlana, ez da soilik adierazpen bat; atmosfera bat da, jarrera bat, gaitasun bat. Eta Bherria bezalako proiektuek arlo publikoaren eta sozialaren arteko elkarguneak diseinatzeko potentziala ez ezik, antolaketa-ereduak aldatu ahal izateko gaitasuna ere badute.

Lankidetzako ikerketak



Lankidetzako ikerketak

2020ko martxoaren 13an, nahitaezko konfinamendua ezarri zen osasun-alerta medio, eta, orduan, Bherria Egonaldia itxi genuen eta, harekin batera, orain arteko azken topaketa fisikoa ere bai. Une hartan, non geunden galdetzen digutenean, dozenaka pertsonak esango dugu gure lankidetzaproiektuak beste lankide batzuekin batera birpentsatzen ari ginela.

Krisia hasi zenetik, Bherriarekin loturiko pertsonak eta erakundeak pandemiaren inguruan era askotako erantzunetan parte hartu dugu. 2020ko apirilean, gure blogean artikulu bat argitaratu genuen, eta honela hasten zen:

"Elkartasun eta elkarri laguntzeko mezu pila bat ari dira sortzen aste hauetan, herritarren ekimenetik eta lankidetzako publiko-sozialetik, larrialdi koronabirikoari erantzuna emateko. Hasieratik Bherriaren interes, gogoeta eta jardueraren muina izandako hori orain denbora errealean bizitzen eta esperimentatzen ari gara modu aplikatuan".

Hain zuzen ere Bherriaren 2021eko Topaketak esaldi horretatik eta horren ziurtasunetik edan du: garrantzi handiko uneetan, erronkak gailentzen gaituztenean, lankidetzako benetako aukera eta aukera egoki bilakatzen da. Eta ideia hori aintzat hartuta, berriro errealitatera itzuli ginen denbora honetan pertsonak eta erakundeek bultzatu dituzten ekimen guztietatik ikasteko. Topaketa hau irudikatzerakoan, aurretiko ikerketa batean oinarritzea proiektatu genuen, haren ondorio eta ikaskuntzekin urriaren 14ko hausnarketan eta lanean laguntzeko.


15 azterketa-kasu sakondu ditugu hiru erakunderen eskutik: Novagob Fundazioa, La Hidra eta Erain. Hasieratik garbi izan genuen egoera hori lehen lerroan bizi izandako pertsona eta erakundeetan oinarritu nahi genuela eta ikasteko eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko irakurketa bat ere egin zezaketela, gainera. Hauxe izan da fokua: eraiki nahi ditugun etorkizunak ekartzeko, orainaldian jada gertatzen ari dena ikusiaz, hori posible egiten duten ñabardurak harrapatzeko.

Ikerketa-ariketa lankidetzako ariketa bat izan da. Hiru erakundeek interes handiarekin hartu zuten gure proposamena, eta denbora horretan erantzunak katalizatzen zituzten beste pertsona eta erakunde batzuekin hitz egiten hasi ziren. Azterketa-kasu bakoitzaren analisia eta ulermena errazteko, ikerketa-bloke ezberdinak hartzen dituzten proiektuen matrize bat proposatu


genien ikerlariei: proiektuaren eskema orokorra, proiektuaren ekosistema bultzatzailea, inpaktuak eta emaitzak (ukigarriak eta ukiezinak), ikaskuntzak eta lankidetzaz publiko-sozialerako erabakigarriak diren zenbait ezaugarri. Matrize horrek proiektuak sistematizatze lanaren arrastoa jarraitzen du, Bherriaren edizio ezberdinetako eta, bereziki, Bherriaren 2020ko Egonaldi-ko ikaskuntzen emaitzak.

Proiektuen, erakunde ikertzaileen eta proiektuaren dinamizatzaileen arteko lankidetzazari esker gauzatu ahal izan dira edukia nahiz egitura eta larrialdi sozialeko garaietan lankidetzaz publiko-sozialaren erantzuna hobeto ulertzeko esparrua.

15 proiektuk arlo ezberdinetan duten inpaktua ulertzeko helburuarekin, horietako bakoitza etiketa tematiko batekin edo gehiagorekin lotu dugu. Hitzek baino gehiago, tamaina handiagoarekin ikusiko ditugu ikerketetan gehien errepikatu diren etiketak.



Gainera, 11 ezaugarri definitu ditugu lankidetza publiko-sozialeko prozesuen garapen-maila ulertzeko. Talde bakoitzean ezaugarri horiek nola garatzen diren baloratzeko eskatu diegu ikerketa-erakundeei, eta horiek bistaratzea eragin dugu. Grafiko honek ikertutako 15 proiektuen erronken oinarri diren ezaugarrien batez bestekoari buruzko informazioa ematen du.



Jarraian, ikerketa bakoitzaren funtsezko edukiez goza dezakezu (abiapuntuko ideiak, hipotesiak, azterketa-kasuen aurkezpena, ikaskuntzak eta ondorioak). Azterketa-kasu bakoitzaren azterketa-fitxak Bherria-ko biltegi digitalean artxibatuta daude. Hemen aurki ditzakezu:
www.bherria.eus/topaketa-2021

Berrikuntza publiko eta soziala etorkizun komun bat eraikitze aldera uztartuak

NOVAGOB



Berrikuntza publiko eta soziala etorkizun komun bat eraikitze aldera uztartuak

Arestian dagoeneko aipatu dugun bezala, pandemia bat-batean agertu izanak ikaskuntza ezberdinak eskuratzeko lankidetza prozesuak erraztu zituen. Bere eragina arlo publikoan, lankidetza garatzeko moduetan eta esparrutan edo esperientzien segida dira gako nagusienetakoak Encarna Hernandez Kazetari-tzan lizentziatua, Zientzia Politikoa eta Administrazio Publikoan doktorea eta Novagb Fundazioko zuzendaria denak egin duen ikerketan; Novagob Fundazioa Iberoamerikako eremuan jarduten duen berrikuntza publikoko ekosistema bat da. Egun, Sare Sozial batek, Sariak, Kongresuak eta Gobernu Laborategiak osatzen dute.

Abiapuntua

1. Ideia. Larrialdiaz haratago begiratzea

Begiratu batean, ikerketak eramaten gaitu pentsatzera Covid-19aren ondoriozko krisiaren aurrean sortu ziren ekimen gehienak uneko eskaerak berehala asetzea bideratu zirela, beraz, agortu egin ziren behar zehatz horiek estali zirenean eta, guztiz ageriko moduan, konfinamenduaren amaiera heldu zenean. Beraz, aztertu beharreko atal garrantzitsuetako bat ekimenen segida da; baita epe luzerako, etorkizunerako, susperraldirako begirada ere.

2. Ideia. Proiektuen mailakotasuna

Kontuan hartu beharreko beste atal bat proiektuen mailakotasuna da. Pandemiaren eragin globalak lankidetza sare bat aktibatu zuen zeinetan horizontaltasunak, egokigarritasunak eta irekitasunak ahalbidetu zuten nodo nazional eta internazional berrien sorrera.

3. Ideia. Teknologiaren abagunea

Tokiko partaidetzarako plataforma digitalak, izaera publikoa zein hiritarra zuten informazioa, babesa, errekurtsuak eta ekimenak hornitzeko eta bateratze-lana egiteko kanal bihurtu ziren, solidaritate-sareen edukiera, hedapen eta euskarri modura. Teknologia erraz egokitzen zen komunikazio behar berriekin, lankidetza edo berrikuntza proiektuak abian jartzeko oso erabilgarriak gertatu diren ad hoc esparru digital berriak sortuz.

4. Ideia. Sinergiak ezartzeko aukera

Krisi orotatik dator aukeraren sorrera. Administrazio Publikotik ezin da alferrik galdu gizartearekin eta beste administrazio publiko batzuekin lankidetza estrategiak sendotzeko aukera hau. Ikuspegi hau da pandemian zehar garatutako komunitate mailako esku hartze esperientzien eta adimen kolektibo bezala "giharra" sendotzera datozen Administrazio Publikoaren baitan garatutako proiektuen azpian dagoena, gero eta arazo larriagoak ebazte aldera.

Hipotesia

Lankidetzarako bost praktika egoki (edo praktika esanguratsu) identifikatu ditugu, eta suposatu dute eremu ezberdinetatik indarrak batzea, hasiera bateko hipotesi edo inpresio ezberdinak moldatzen dituzten berezitasun oso zehatzak kontuan hartuta.


Laburbilduz, ikerketa honetan aztertutako bost esperientziak osatzen dira berrikuntza publiko eta sozial irekien eta ezinbestean uztartuen hipotesiaren inguruan etorkizun komun bati aurre egiteko.

Ba al dago aukerarik pandemiaren hasieran sortutako dinamikak hiritarren eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetza dinamika iraunkor batera hedatzeko? Pandemia global bati aurre egiteko behar honetaz baliatu al gitezke herritarrekin lankidetza prozesuetan berrikuntza irekirako sare internazionalak finkatzeko? Eta teknologiaz baliatu al gitezke aktibismo soziala bideratzeko? Zeintzuk dira erronka konplexuei aurre egiteko beharrezko adimena dakarten metodologiak?


Ikertutako esperientziak

Proiektua	Deskribapena
Frena la Curva Aragoi nazioarteko inpaktuarekin	Aragoiko Gobernuaren LAAABetik sustatzen den berrikuntza sozialetako eta erresilientzia zibikorako ekimena. Ordu gutxitan lankidetza publiko-pribatuaren lankidetza-sare bat eratzen da, aurrea hartzeko alarma egoeraren aldarrikapenarekin sortzea aurreikusten den elkartasun olatuari eta lerro-ekintza ezberdinen bitartez bideratzen da.
Xarxa Ciutadana Granollers (Barcelona)	Granollerseko Udalaren plataforma digitala konfinamenduaren epean zehar sortzen diren herritarren ekimenak bistartzeko eta biltzeko, aldi berean dagokien akonpainamendua emanez.
Comunidad La Laguna (Tenerife)	Udaletxetik, unibertsitate publikoarekin batera, La Lagunako udalerriko barrutietan esku hartzeko proiektua, Covid-19aren ondoriozko krisi sozioekonomikoari aurre egiteko, komunitate-ehunean sakonduz eta epe luzearako bere finkapena sustatuz.
Retos 2021 Administración Innovadora Espainia nazioarteko inpaktuarekin	NovaGob komunitatetik eginiko ko-sorkuntzarako eta adimen kolektiborako ekimena zeinetan, nagusiki, sektore publikoko enplegatuek kolaboratzen duten administrazioaren erronkak identifikatu, lehenetsi eta eztabaidatzeko, deskonfinamendutik aurrera.
Your city, our future Bristol (Erresuma Batua)	Bristoleko Udalak garatutako prozesu parte hartzailea, ekimen ezberdinak direla medio, deliberamendu Batzorde bat barne, herritarren iritzia biltzeko, Covid osteko berreskurapenerako etorkizuneko planari dagokionez.


Hona hemen proiektu bakoitzaren ezaugarrien balorazioa jasotzen duten grafikoak. Bistaratzeko horrek aukera ematen digu lankidetzari buruz hausnartzeko, benetako proiektuak alderatzeko eta arrakastarako gako horien arteko lotura ulertzeko.




FRENA LA CURVA




XARXA CIUTADANA



COMUNIDAD



RETOS 2021 ADMINISTRACIÓN INNOVADORA



YOUR CITY, OUR FUTURE

Ikaskuntzak eta ondorioak

Bost esperientzia hauen analisiak bost ondorio nagusi uzten dizkigu lankidetza publiko-soziala larrialdiaz haratago bideratzeko.

1. Lehenik eta behin, lankidetza prozesuetan modu masiboan erabili den teknologia digitalaren erabilerak dakartzan aukera eta erronka ezberdinak. "Frena la Curva" bezalako esperientzietan, teknologia erabilgarriak lankidetza-jarduera errazteko eta eragin soziala duen aktibismo sozial positiboa bideratzeko aukera eman zuen. "Your city, our future" esperientziak erronka itzela ekarri zuen online prozesuen baitan inplikatzekoan infraordezkatuta dauden kolektiboak, beraz, derrigorrez garatu behar izan ziren offline komunikazio ekintzak.
2. Gero, eremu publiko eta pribatu ezberdinak konektatzen dituzten ekosistemen garrantzia. "Comunidad" izenekoan, berrikuntza irekia lan-tzen duen ikuspegia, La Lagunako ekosistema sozialeko aktore ezberdinak eta ekosistema soziala bitarteko, proiektio handiagoko erantzun bat eraikitzeiko ikuspegi kolektibo bat ekartzea ahalbidetu du. "Frena la Curva" esperientziaren harira, ekosistemak LAAABekin duen loturak erantzun bat aurreratzea ahalbidetzen du etorri ahal denari dagokionez.
3. Ekosistema horren baitan giltzarri dira pertsonak eta erakundeak gaitasuna dutenak ez bakarrik liderrak izateko, baita zu-biak eratu, eratsi eta hedatzeko ere. Aztertutako proiektu ezberdinetan ikusi ahal izan dugun zerbait da, bereziki "Frena la Curva", "Retos 2021 Administración Innovadora" eta "Comunidad" esperientzietan.
4. Gainera, sare-kolaborazioa metodologia optimo modura azaltzen da berrikuntza irekiaren prozesuetan, zeren harremanak sortzea eta harremanerako esperientziak sendotzea ahalbidetzen du, ekimenei segida emate aldera. "Xarxa Ciudadana" esperientzian agerikoa izan da lankidetza honen ahalmen eraldatzailea, barne antolamenduari malgutasuna eta horizontaltasuna emanez, zeharka koordinatutako erantzun batekin.
5. Eta azken aipamen horren harira, aipatzekoa da erronka komunak ebazteko adimen kolektiboaren balioa. NovaGob komunitatearen "2021 Retos" esperientzia eraikitzeiko ko-sorkuntza ariketak adimen kolektiboa garatzen du Administrazio Publikorako erronka gero eta zailagoak ebazte aldera. "Your city, our future" izeneko esperientzian eskatzen zaie Bristoleko herritarrei begirada jartzeko berreskurapen ekonomiko eta sozialean, krisiari emandako berehalako erantzunaz haratago.

Nola sortu lankidetza- esparruak bilbe komunitarioekin Administrazio Publikotik

LA HIDRA



Nola sortu lankidetzak-esparruak bilbe komunitarioekin Administrazio Publikotik

Ikerteta honetan, lankidetzaren alderdi soziala aztertu dugu bost egoeraren inguruan: ekonomia soziala eta solidarioa, auzo-ehunak, hirugarren sektorea, aktibismo digitala eta maker komunitatea. Analisia egiteko, uste da bilbe komunitarioak funtsezkoak direla tokiko jardueraren instituzionalaren eta herritarren ekimen sozialen artean lankidetzak-esparru berriak ezartzeko.

Ikerteta Laia Fornék (demokrazian eta ondasun komunitarioetan aditua den soziologoa) eta Mauro Castrok (ikertzailea eta aholkularia herritarren parte-hartzean eta hiri-politikan) egin dute. Biak La Hidarakoak dira; hots, hirirako eskubidea bermatzeko hiri-eraldaketan aritzen den kataluniar kooperatibakoak.

Abiapuntua

1 Ideia. COVID-19ak bilbe komunitarioek duten garrantzia erakutsi du.

Hondamendi naturalen ekologia politikoari buruzko azterketek oinarritzko bi printzipio berretsi dituzte: a) hondamendi beraren aurrean, inaktuak kaltegarriagoak dira prekarietate handiagoa jasaten duten populazioentzat; b) gihar komunitario handiagoa duten gizarteak arriskuen aurrean erresistenteagoak dira, eta inaktuaren ondoren berreskuratzeko gaitasun handiagoa dute.

Koronabirusaren pandemiak eragindako larrialdiak bi ideia horiek baieztatzen ditu:

- Bizitzari eusteko baldintzak larriagotu egin dira, eta gizartearen muturreraino eramanez dute, lehendik zeuden ahultasunak eta desberdintasunak areagotzearekin batera.
- Erantzun gisa, elkartasun-ekimenak ugartu dira, bilbe komunitarioek duten garrantzia agerian utziaz, bizitzari eusteko benetako zutabemoduan. Batzuk indibidualak eta berezkoak izan ziren edo konfinamendutik eratorritako baldintza espezifikoek erantzuteko pertsonak aldi baterako biltzearen emaitza. Esperientzia horien artean, erantzun kolektiboak ere aurkitu ditugu, ekintza kolektibo modu berrietan mamitu daitezkeenak.

2 Ideia. Pandemia aukeraren testuinguru gisa

Herritarren elkartasunaren larrialdiak aprobetxatu beharreko aukera-leiho bat ireki du lankidetza-esparru berriak ezartzeko tokiko jarduera instituzionalaren eta herritarren ekimen sozialen artean, boterearen erabilera publiko bertikala eta zentralizatua aldatzeko, dauden ahalmen, ezagutza eta egitura komunitarioak errekonozitu eta kontuan hartzeko aukera ematen duen lankidetza-eredu baterantz bideratze aldera.

Hipotesia

Abiapuntuko hipotesia da ehun sozio-komunitarioa funtsezko elementua izan daitekeela krisia igaro ondoren aukera berriak eraikitzeko; halaber, elkartasun hori eta bilbe komunitarioak ez direla hutsetik sortzen, baizik eta aurretiko ondare kulturean babesten direla, eusten dioten azpiegitura sozialetan eta denboran zehar irauten duten harreman sozialetan.


Premisa horiek aintzat hartuta, lankidetza publiko-sozialaren alderdi soziala aztertuko dugu, gizarte-mailako adierazpen ezberdinak irudikatzen dituzten bost esperientziatik abiatuaz.

Zer gertatzen da bilbe komunitarioekin instantzia publikoekiko dituzten loturetan? Zer-nolako aldeak daude alderdi sozialeko aktore ezberdinen arteko lankidetza-esparruetan? Lankidetza-esparruak egokiak al dira azpiegitura sozial hori eta bilbe komunitario horiek sustatzeko? Nola eusten zaio elkartasunari COVID-19tik haratago?


Ikertutako esperientziak

Proiektua	Deskribapena
Alimenta proiektua Bartzelona	Ekimenaren helburua da lankidetzaz publiko-sozialeko esparru bat eraikitzea, Bartzelonako hirian elikadura sozialaren arloan dauden zerbitzuen inguruko ekintza eta baliabide ezberdinak biltzeko.
Decidim.Barcelona Bartzelona	Bartzelonako Udalak parte hartzeko duen plataforma digitala da. Kode librean garatuta dago, eta gobernantza publiko-komunitarioa du; bertan, erakundeak, eragile sozialak, profesionalak eta herritarrak biltzen dira. Gaur egun, 100.000 erabiltzaile baino gehiago ditu.
Coronavirus Makers Espainia	Koronabirusaren aurka babesteko ospitaleetarako, egoitzetarako eta gizarte-zerbitzuetarako materialak fabrikatzeko lankidetzaz teknologikoa bultzatzeko sortutako herritar ekimena da. Erantzunak itxaropen guztiak gainditu zituen, eta 17.000 erabiltzaile izatera iritsi zen Espainiako estatu osoan.
Red de Mujeres Cosedoras Bartzelona	Emakumeen (batez ere migratzaileak) josteko talde informalak biltzen dituen sarea da, eta helburu bera partekatu dute: jostearen bidez okupatzeko borondatea. Elkarrik laguntzeko, autoenplegurako eta aktibismoarako ekimen komunitarioa da, eta jarduera ekonomiko bilakatu nahi du Ekonomia Sozialaren eta Solidarioaren babesean. Emakume Jostunen Sareak eginkizun solidario handia garatu du, maskarak josi baititu eskura ezin ziztuzten pertsona eta profesional publikoentzat.
Casales Comunitarios Bartzelona	Elkartasun-sareak indartu nahi dituen politika publikoa da, haiei baliabideak eta laguntza teknikoa emanaz, hiriko hurbiltasuneko ekipamenduen bitartez.


Hauek dira proiektu bakoitzaren ezaugarrien balorazioa jasotzen duten grafikoak. Bistaratzeko horrek aukera ematen digu lankidetzari buruz hausnartzeko, benetako proiektuak alderatzeko eta arrakastarako gako horien arteko lotura ulertzeko.




ALIMENTA




DECIDIM BARCELONA



CORONAVIRUS MAKERS



RED DE MUJERES COSEDORAS



CASALES COMUNITARIOS

Ikaskuntzak eta ondorioak

Bost esperientzia horien analisiak bost ikaskuntza nagusi eta hainbat hausnarketa utzi dizkigu, lankidetza publiko-soziala larrialditik haratago bideratzeko.

1. Lehen ondorioetako bat da lankidetza publiko-soziala hobeto edo errazago egiten dela ibilbide luzea duten, finkatuta dauden eta entitate juridiko propioa duten proiektu edo erakundeekin. Modu horretan, era horretako proiektuek gaitasun handiagoa dute administrazioarekin erlazionatzeko eta haien ekimenak bultzatzeko baliabide komunak aprobetxatzeko. Hain zuzen ere, Hirugarren Sektorearen edo Ekonomia Sozial eta Solidarioaren kasua da. Elkarri laguntzeko sareek, ordea, erakusten dute ekimenak emergenteak izan diren auzoetan eta administrazioarekin aurretik harremanik izan ez dutenetan, batik bat beren baliabideak edo baliabide pribatuak erabiltzea hautatu dutela haien jarduera garatzeko, azpiegitura sozial sendoa zuten haietan ez bezala. Ildo horretan, aurretik bilbe komunitario solidoak izateak lankidetza publiko-komunitarioa errazten du, hori sendotzearekin batera.
2. Larrialdi-uneek ere erakutsi dute Administrazio Publikoarentzat laborategi bihur daitezkeela, proba-akatsa espazioak irekitzen baitituzte, eta, orduan, administrazioak esperimentatu eta ezusteko aldaketetara egokitzeko aukera hartzen du, irtenbide berriak bilatzeko arintasun handiagoa eta berrikuntza behar duen bitartean. Hori ikusi dugu Alimentaren kasuan, aukera eman baitu elikadura sozialeko zerbitzu berri baten sorreran berritzeko, edota Coronavirus Makers-en kasuan, tokiko administrazioaren zerbitzuen barne-kudeaketa egokituta, Ateneoak "funtsezko zerbitzu" aitortu ondoren. Horri esker, kanpoko kontratuak aldatu ahal izan zituen zerbitzua berrantolatzeko eta giza baliabideak berregituratzeko, premiara arin egokitzearren, eta 3D teknologian eta beste sare eta proiektu batzuekin koordinatuta materiala ekoizteko lanean jarriaz.
3. Proba-akatsa espazioak, halaber, ikasteko espazioak dira, eta erakundeek kudeaketa eta gobernantzako formula berriak probatzen uzten diete, administrazio-kudeaketaren dinamika arruntean pentsa ezin daitezkeenak. Boterearen erabilera toki-administrazioak izandako estilo-aldaketa bilbe komunitarioekiko errespetu eta errekonozimendu handiagotan oinarritu da eta horizontaltasun handiagoko eta sareko gobernantza-egitura batean. Administrazioak errespetuzko eta errekonozimenduko papera hartzen duenean, baliabide eta azpiegitura publikoen bideratzaile eta transmititzaile moduan kokatuta eta lidergoa

herritarrei utzita, proiektuak finkatu, eskalatu eta bilbe komunitarioak indartzen dira. Coronavirus Makers-en kasuan ikusi dugu, administrazioak ez baitu politizatu bere helburuetarako, herritarren lidergoa, sareko koordinazioa eta kode irekia errespetatuaz ekoizpen-modu gisa

4. Gobernantza publiko-sozial berri horretan funtsezkoa izan den beste elementu bat proiektua bultzatzen duen taldearen lidergo hibridoa da. Alimentaren kasuan, zuzendaritzaren irudi polibalentea, administrazioaren eta Hirugarren Sektorearen funtzionamenduaren gaineko ezagutza konbinatu baitu, negoziatzeko eta bitartekaritzan aritzeko rolak bere gain hartuta, eta hori gakoa izan da hurbilketa eta ulermenerako. Era berean, Red Mujeres Cosedoras sarearen adibidea daukagu; aldi baterako enpresa-elkartetik sortu da, Gizarte Ekonomiako teknikari komunitarioen eta emakumeen taldeen artean, eta proiektuari eusteko baliabideak biltzeko nahiz lan komunitarioaren zati bat, gobernantza, zaintzak eta ekintzailatza garatzeko aukera ematen du.
5. Baina pandemiatik haratago, badira esparru batzuk, lankidetza publiko-sozialaren finkapena eta iraupena errazten dutenak eta zailtzen duten beste batzuk ere bai. Kudeaketa-esparru publiko-komunitarioa garatzeko arazoetariko bat da tokiko administrazioa Kontratazio Publikoari buruzko Legearen mende dagoela, eta, Lege hori, azken batean, Europako zuzentarauen mende dago, eta bertan aitortzen dira merkatu askea eta lehia "librea" ondasun eta zerbitzu publikoak esleitzeko.

Alimenta horren adibide da. Proiektuaren iraunkortasuna arriskuan aurkitzen da Udalak ezin duelako bermatu era horretako toki-erakundeei baliabideak eskualdatzerik. Kontratazio Publikoaren Legeak ez du aurreikusten proiektu horiek egiten duten lanaren errekonozimendurik, eta konkurrentzia publiko bat ezartzera behartzen du beti, zerbitzu bat garatzen ari den tokiko aktore bat dagoenean beti egokitzen ez dena, eta, lurraldearen ezagutzari eta lan komunitarioari dagokienean berezitasun bat duenez, beste enpresa edo erakunde batek ordezkatzeari zailtzen du.

Modu horretan, erakundeak Hirugarren Sektorearekin eta, bereziki, tamaina handiko erakundeekin erlazionatzen badakiela ikusten dugu, hitzarmenen bitartez; zailtasunak ditu, ordea, proiektu komunitario txikiekin lankidetza-esparruak ezartzeko.

Lankidetza publiko-komunitarioari eusteko eta hori finkatzeko, Legeak beste kontratazio-tresna batzuk jaso behar lituzke, konkurrentzia publi-

kotik haratago, eta gardentasun- eta ebaluazio-mekanismoak behar lirateke proiektuen inpaktu soziala eta komunitarioa neurtze aldera, esparru juridiko berriak onartzeaz gain, gobernantza publiko-komunitarioaren beste modu batzuk ere posible izateko.

Ilido horretan, Bartzelonako Udalak jardunbide egokiak garatzen ditu; hala nola, Herritarren Ondarea politikaren kasua edo sozialki arduratsua den erosketa ezartzea (Kontratazio publiko sozialerako gida. 2017). Modu horretan, Bartzelonako Udalak ehungintza iraunkor eta arduratsuaren aldeko apustua egin du, adibidez, maskara eta babesteko materiala erosterakoan diskriminazio positiboak eginez, Red de Mujeres Cosedoras bezalako ekintzailatza komunitarioko esperientziak bultzatzearen. Halaber, ikusi dugu aurrekontu publikoak erabili direla Coronavirus Markers bezalako esperientziak bultzatzeko, zeharkako eta epe luzerako inpaktuak eta onurak aintzat hartuta.

Azken finean, COVID-19ak erakutsi du larrialdi-egoeretan bilbe komunitarioek duten garrantzia eta gihar komunitario handiagoa duten gizarteak erresistenteagoak direla arriskuen aurrean, irtenbideak bilatzerakoan berrikuntza-maila handiagoa dutela, eta inpaktuaren ondoren errekupeartzeko ere gaitasun handiagoa dutela. Halaber, ikusi dugu bilbe sendoago horiek aurretiko ondare sozial eta kultural batean eta horiei eusten dieten azpiegitura sozialetan oinarritzen direla.

Bilbe komunitarioak ezinbestekoak badira larrialdi-egoeretan, administrazioak azpiegitura sozialak sortu eta bultzatu behar ditu, loturak sortzeko eta baliabideak eskuratzeko zubi izateko ekipamendu komunitario eta espazio publikotzat hartzen diren heinean. Alegia, espazio horietan, komunitatea eta ehun soziala eta auzo-ehuna erreproduzitu egiten dira, administrazioarekin gobernantza-espazio bat partekatzearekin batera. Gobernantza hori, beraz, horizontaltasunean, autonomian, errespetuan eta erantzunkidetasunean oinarritzen da.

COVID19ak zenbait ikaskuntza eta erronka agertu ditu Administrazio Publikoarentzat: hurbileko zentro zientifikoak sustatzearen aldeko apustua (Fabrikazioko Ateneoen antzera), tokiko bilbe komunitarioen premiekin eta interesekin konektatuta dauden espazio ireki gisa; azpiegitura sozial digitalak sortzea eta sendotzea espazio publiko hibrido gisa, bertan, konexioak, komunitatea, bertakoa izatearen zentzua, nortasun komuna eta abar eratuaz; edo lankidetzaz publiko-komunitarioerako esparru juridiko solidoak finkatzea, adibidez, Herritarren Ondarea, tokiko komunitateek ekipamenduak eta zerbitzu publikoak utzi eta kudeatzearen.

Horiek dira COVID-19ak utzitako ikaskuntzei aurre egiteko zenbait adibide, eta, beraz, larrialdi-egoeretan bilbe komunitarioak garrantzitsuak direla eta horiek azpiegitura sozialen bitartez indartzen direla argi geratu da. Azpiegitura sozial horiek, aldi berean, administrazio publikoen eta komunitarioa denaren arteko lankidetza-esparru egokia dira, eta, baliabideak eta zerbitzuak hobeto egokitzeko aukera emateaz gain, koiunturako ekintzetatik haratago joaten uzten dute, koprodukzio publiko-sozialeko harreman iraunkorrak sortuz.

Zainketa eta osasun mentalaren erkide baterantz: gakoak lankidetzan publiko-sozialetik

ERAIN



Zainketa eta osasun mentalaren erkide baterantz: gakoak lankidetza publiko-sozialetik

lkerketak arlo publikoaren eta sozialaren arteko lankidetza-bideak aztertzen ditu zainketen ikuspegitik, batez ere osasun mentalaren eta bizitzari eustearen esparruarekin lotuta, lankidetza-proiektuetarako ikaskuntza esanguratsuak, baliagarriak eta aplikagarriak ateratzeko, komunen ekoizpenetik erreparatuta.

Azterketa Iñaki Garciak egin du, osasun mentalean aditua den psikoterapeutak eta Eraineko koordinatzaileak; hau da, Bilbon kokaturiko gizarte-ekimeneko euskal kooperatiba, osasun mental komunitarioa garatzeko helburu nagusia duena.

Abiapuntua

1 Ideia. Bizitzaren ahultasuna agenda publikoan sartu da

Eguneroko bizimoduarekin eta zaintzekin loturiko alderdiak garrantzia hartzen ari dira politika publikoen garapenean: osasun publikoarekiko, adinekoen egoitzekiko, osasun mentalarekiko, suizidioekiko edo heriotza duinarekiko kezka, besteak beste. Ahulak garela eta beste bizitza bat bizi daitekeela sumatzen hasi gara.

2 Ideia. Sare komunitarioak eta ekimen kolektiboak

Azken urteetan, eta batez ere pandemia sartu zenetik, hainbat sare komunitario hedatu dira zaintzak egiteko. Hain zuen ere, ekimen kolektiboak dira, eta eremu oso ezberdinak jorratzen dituzte (nahi ez diren bakardadeen prebentzioa, partekaturiko hazkuntza-guneak edo elikadura osasungarria eta hurbilekoa sustatzea,...). Era horretako sareak ekintza publikoaren osagarri izan daitezke, eta Administrazio Publikoak detektatu gabeko premiak entzuteko sistema izan daitezke.

Hipotesia


Osasun-larrialdiko egoera horretarako prestatu gabe zegoen Administrazio Publikoa, eta erakundeen gizarte-zerbitzuak gainditzen dituzten baliabideak behar izan dira. Testuinguru horretan, baliabide ekonomikoak eskuratu dira denbora laburrean, nolabaiteko errekonozimendua eman zaio borondatezko ekintza profesionalari edo pandemia aurretik imajinatzen zailak ziren hobekuntzak egin dira harreman publiko-sozialean.

Osasunarekin, zaintzekin eta bizitzari eustearekin loturiko 5 esperientziaren analisitik abiatu gara ikerketa hau egiteko. Zer-nolako aldaketa-elementuak gertatu dira osasun publikoaren kudeaketan, pandemian zehar? Nola lortu osasun-arloko zein proiektu komunitario sartu Administrazio Publikoarekiko lankidetza-harremanean, konfrontaziorako espazioak gaindituz? Zer-nolako aurrerapenak detektatu ahal izan dira lankidetza publiko-sozialean, zaintzei eta bizitzari eusteari dagokienean? Zer beste baliabide eta laguntzek iraunaraziko lukete ekintza komunitario bat osasunaren zaintzan?


Ikertutako esperientziak

Proiektua	Deskripzioa
San Diego Osasun Taldea Vallecas (Madril)	Osasun komunitarioko lantaldea honako hauek osatzen dute: Vicente Soldevilla eta Martinez de la Riva de Vallecas (Madril) osasun-zentroetako profesionalek, auzoko hainbat auzo-elkartek, Plataforma por la Sanidad Pública plataformak eta beste osasun-zentro batzuetako profesionalek.
Katearen Loturak Arrasate (Gipuzkoa)	2020. urtean zehar, pandemia bete-betean, patologia dualeko arazoak dituzten pertsonen amen elkarte batek (Arrasateko udalerrikoa), haien senitartekoen egoera soziosanitarioa larriagotu zela ikustean, herriko udalarekin harremanetan jarriko da pertsona horiekin lan-plan bat garatzeko.
Psikobizi Bizkaia	Proiektuak Bizkaiko biztanleria osoaren eta, bereziki, pertsona ahulenen eskura jarri zuen telefono bidezko arreta psikologikoaren zerbitzua, 60 profesionalek, krisi-egoeraren aurreko arretan adituak ziren pertsonen, artatua. Guztira, 504 kontsulta jaso zituzten, horietako %74 emakumeek egindakoak.
COVID-19 Ekintza Plana Bilbao	Bilboko Udaleko gizarte- eta osasun-ekintzako arloek Larrialdi Plana diseinatuko dute modu inprobisatuan, eta konfinamenduko hilabeteetan garatuko dute kale-egoeran aurkitzen diren pertsonen premiei erantzuna emateko. Udalerriko bost kiroldegiz urgentziaz prestatuko dira 328 pertsonari aterpea emateko, eta Hirugarren Sektoreko 8 erakunde kontratatuko dira Planeko zeregin zehatzez arduratzeko.
Cotidianas Madril	Ekimen hau elkarri laguntzeko eta zainketetarako komunitate bezala sortuko da Madrilgo emakume helduen artean, nahi ez diren bakardadeak prebenitzeko, genero-ikuspegiarekin. Hain zuzen ere, hirurogei urtetik gorako emakumeentzako topagune sortzailea eta soziala izango da.


Hauek dira proiektu bakoitzaren ezaugarrien balorazioa jasotzen duten grafikoak. Bistaratzeko horrek aukera ematen digu lankidetzari buruz hausnartzeko, benetako proiektuak alderatzeko eta arrakastarako gako horien arteko lotura ulertzeko.




GRUPO SALUD COMUNITARIA SAN DIEGO




KATEAREN LOTURAK



PSIKOBIZI



PLAN DE ACCIÓN COVID-19



COTIDIANAS

Ikaskuntzak eta ondorioak

Aurrean adierazi bezala, pandemiak eta birusari eusteko neurri politikoek osasun mentala funtsezko gai bihurtu dute agenda politikoaren eta espazio publikoko eztabaidaren barruan. Hala eta guztiz ere, zailtasunak ikusi ditugu osasun-arloko eredu komunitario bat ezartzerakoan, zerbitzuak emateari buruzko ikuspegi indibidualista gainditzeko, batez ere erakunde publikoen inplikaziorik eta bitartekaritzarik aldeztu aurretik ez dagoen lekuetan.

Lankidetza publiko-soziala larrialditik haratago orientatzeko zazpi ikaskuntza nagusi atera ditugu:

1. Ezinegonak politizatzea dakarten zaintza-ekimenen euskarri instituzionalak funtsezko gakoak dira arlo publikoaren funtzioak hedatzeko. Erakunde publikoek herritarren aldarrikapenak behar bezala entzun eta bideratu behar dituzte. Nahiz eta batzuetan eskaeren beligerantziak entzutea zail dezakeen, gure ustez funtsezkoa da energia hori aldatzea-aukerak gisa interpretatzea eta bide egokia ematea. Katearen Loturak esperientzian, egiaztatu dugu osasun mentarekin eta droga-mendetasunekin loturiko egonezina politizatzeetik sortutako esperientzia batek balio duela udalerriko gizarte-zerbitzuek orain arte ikusi gabeko errealitate batekin konektatzeko.
2. Erakunde publikoetan, badira, plan politikoetatik haratago, batez ere teknikarien eta agente komunitarioen arteko harremanaren mende dauden aukerak. Aldeztu aurretik bilbe komunitarioa eta espazioen arteko erlazioaren aurretiko esperientziak dauden lekuetan, errazagoa da zaintza iraunkorren eta eskalagarrien proiektuak ateratzea. Era berean, gure ustez, oinarritzak dira administrazio- eta komunitate-guneek elkar ezagutzea. Psikobiziren esperientzian egiaztatu da erakundeek nola-baiteko aintzatespena egin dietela era horretako zerbitzua eskatutako herritarrei laguntza eta arreta psikologikoa ematen aritu diren kolektibo profesionalei; Grupo de Salud de Vallecas taldearen esperientzian ikusi dugu osasun-arloko kidego profesional instituzionalak oztopo instituzionalak gainditzeko dituela murgilduta dauden komunitatearekin harremanetan jartzeko.
3. Pandemiak agerian utzi du udal-errekuntzarako alda daitezkeela, eta urgentziaz, gainera. Egokitzea borondate-kontua gehiago dela gaitasun-kontua baino; izan ere, nahi izanez gero, posible da etxegabetasun-egoeran dauden pertsonentzako bizileku-baliabideetara funts gehiago

bideratzea. Hirugarren Sektorea pandemia baino askoz ere lehenagotik eskatzen ari da bizileku-baliabideen igoera, baliabideetara jotzeko itxaro-zerrenden murrizketa eta zerbitzuaren egonkortasuna erabiltzaileei dagokienean. Birusak, berriz, erakutsi du gauza ez dela hainbeste baliabide-kontua, horiek banatzeko modua baizik. Hori erakusten du Bilboko Udalak garatutako COVID Ekintza Planean gertatutakoak; izan ere, urgentziaz, beharrezko baliabide ekonomikoak lortu ziren konfinatzeko etxerik ez zuten pertsonen artean kutsatzeei eustearren. Eragilean bolutarismoan lana babesteak, nekea eta porrota eragin ditzake zaintzak komunitarizatzeko prozesuak abian jartzerakoan.

4. Zainketek epe ertain-luzeko prozesuak eskatzen dituzte, administrazio-denboretatik eta urteko zikloetatik eta legealdietatik haratago. Nahiz eta proiektu batzuen ebaluazioak emaitza positiboak eskuratu, horiek desgertu daitezke txandako erakundea nork gobernatzen duen kontuan hartuta, Cotidianas esperientziaren kasuan bezala. Hori dela-eta, dagokion laguntza instituzionalaz gain, garrantzitsua da zainketen espazio horizontalen eta autokudeatuen alde egitea, erakunde publikoen mendekotasun-harremana gainditzearren. Gure inguruan, badira osasun mentala autokudeatzeko eta egonezina politizatzeko ekimenak; hala nola, Elkarri Laguntzeko Taldeak eta Katearen Loturak esperientzia, osasun-erakunde publikoetatik kanpo espazio egonkorak sortzen ari direnak.
5. Osasun mentaleko zainketen komunari begiratuta lan egiteak prebentzioaren ikuspegitik jardutea eskatzen du eta ez soilik larrialdiari erantzuna emateko.
6. Zainketen lanari dagokionean, proiektuen barruan beharrezkoa da "zaintzen duena zaintzea" aldagaia sartzeari: batzuetan, agian zerikusia izango du lan-baldintza egokiak sortzearekin; eta, beste batzuetan, zainketez arduratzen diren pertsonen emozionalki edo ekonomikoki eustearekin. Bilboko Udalak COVID Ekintza Planean garatutako ekintzetan, erakunde publikoek lehen aldiz publikoki onartu zuten zaintzen duena zaintzeak duen garrantzia, eta, kasu honetan, telefonoz arreta eskaintzen lehen leerroan zeuden pertsonak.
7. Konfinamenduarekin batera, tresna teknologikoen erabilera etorri da, eta ehun komunitarioa zaintzeko eta mantentzeko baliagarriak izan direla erakutsi da. Cotidianas-en esperientzian, proiektuaren onuradunek eten digitala gainditu dute zaintza-taldeko bizilagunekin harremanetan egon ahal izateko, eta, era horretan, erresistentzia-gaitasuna erakutsi dute.

Bukatzeko gogoeta bat



Topaketaren balorazioa

“Pandemiak bat egiten du oroitzen ditugun beste izaki mitiko handiekin, eta benetan den moduan onartzen da: adimenen kutsatzea, gorputzak kutsatu baino lehen”.

Alessandro Baricco.

Urriaren 14an, munduko leku ezberdinetako 50 pertsona baino gehiago bildu ginen 15 azterketa-kasutatik ateratako ikaskuntzak entzuteko; horiek, gainera, eguneroko erronketara estrapolatu daitezke.

Ikerketetan, hipotesi batzuk hartu ziren abiapuntu gisa, eta erantzunak bi-latzeko galderak sortzen zituzten. Galdera horietako batzuk gogoratzea gustatzen zaigu eta erantzun azkar bat bilatu gabe eustea. Esate baterako, zer-nolako metodologiak dira baliagarriak erronka konplexuei aurre egiteko beharrezko inteligentzia ematen duten prozesuak aktibatzeke? Zer gertatzen da bilbe komunitarioen eta instantzia publikoen arteko loturetan? Lankidetza-esparruak egokiak al dira azpiegitura sozial hori eta bilbe komunitario horiek sustatzeko? Nola lortu osasun-arloko proiektu komunitarioak administrazio publikoarekiko lankidetza-harremanean sartzea, konfrontazio-espazioak gaindituz?

Marian Olabarrietak, topaketa hasteko, honela gogoratu zuen: “lankidetza-prozesuek berekin dituzten mugak, konpromisoak eta konplexutasuna alde batera utzi gabe, inoiz baino gehiago jabetzen gara garrantzitsua dela sareak ehuntzea eta honako hau bezalako espazioak sortzen jarraitzea, guztion artean gizarte zuzenagoa eta solidarioagoa eraikitzen lagun diezaguten”. Ildo horretan, apustu egiteko eta esperimentatzeko gonbita luzatu zigun, “era-kundeak eta herritarrok etengabe ikasten dugula ziur uste izanda”.

Antoni Gutierrez-Rubik bere esparru-hitzaldian lankidetza publiko-sozialeko proiektuen gakoetariko bat nabarmendu zuen: “inoiz baino gehiago baliola ematea dimentsio sozialari eta alderdi publiko partekatuaren espazio bat definitzea, talentua, sinergiak eta eraginkortasuna batuko dituen”. Iraganaren nostalgiatik eta orainaldiko nolabaiteko presa urduritik ateratzen laguntzen zigun, “etorkizuna berreskuratzeke, herritarren ilusioa berreskuratu nahi badugu. Berrirori pentsatu, imajinatu eta eraiki beharra daukagu, edozein proiektu politiko eta sozialerako energien espazio dinamizatzaile eta sortzaile gisa”.

Novagobek adimen kolektiboan "giharrak batzen" dituzten proiektuak berresten jarraitu zuen. Encarna Hernandezek praktika horiek "Administrazio Publikoaren barrutik bultzatzeko ideia indartu zuen, gero eta konplexuagoak diren arazoei aurre egiteko". Halaber, "berrikuntza irekiko ekosistemen garrantzia adierazi zuen, esfera ezberdinak, publikoa eta pribatua, konektatzeagatik".

Hidrak giharrarekin eta bilbe komunitarioarekin berriro konektatzen lagundu zigun: "bilbe komunitario eta azpiegitura sozial solidoak aurretik izateak lankidetza publiko-komunitarioa errazten du, sendotzearekin batera". Modu berean, "Administrazioak errespetuzko eta errekonozimenduko papera hartzen duenean, baliabide eta azpiegitura publikoen bideratzaile eta transmititzaile moduan kokatuta eta lidergoa herritarrei utzita, proiektuak finkatu, eskalatu eta bilbe komunitarioak indartzen dira".

Azkenik, Erainek azpimarratu zuen beharrezkoa dela "ezinegona politizatzea osasun mentalari dagokionean. Erakunde publikoek herritarren aldarrikapenak behar bezala entzun eta bideratu behar dituzte. Nahiz eta batzuetan eskaeren beligerantziak entzutea zail dezakeen, gure ustez funtsezkoa da energia hori aldaketa-aukera gisa interpretatzea eta bide egokia ematea".

2021eko Bherria Topaketaren ebaluazioa alde batera utzita, gure ustez, garrantzitsua da talde bideratzailearen eta bertaratutakoen artean kontratatutako bi ideia erreskatatzea:

1. Lankidetza publiko-sozialaren zenbait ezaugarri deskribatzeak balioa ematen du. Deskribatzeaz gain, nolabait neurtu eta bistaratu egin behar dira, helburuak eta ekintzak komunikatzeko, kontrastatzeko eta bideratzeko. Topaketa honek praktika batekin esperimintatzeko balio izan digu, eta praktika horrek, behin betiko forma hartu ez badu ere, lanean jarraitzeko baliabide ona izan daitekeela erakutsi digu.
2. Gure aukerak doitu behar ditugu, topaketa honetan handinahiak izan baikara berriro. Inspiratzea, proiektuak ezagutzea eta haien gakoetatik ikastea nahi izan genuen, erantzunak prototipo-eran eraikitzeko.

Idatzi egin dugu ikasten jarraitzeko: batzuetan "gutxiago gehiago da".

Bherria taldea.

Proiektuak eta parte- hartzaileak

Bherria Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera, bultzaturiko programa da.

Bherriako koordinazio-taldeak diseinatu eta kontzeptualizatu: Asier Gallastegi, ColaBoraBora (Txelu Balboa) eta Komunikatik (Asier Amezaga eta Arantxa Sainz de Murieta).

Irudia eta diseinu grafikoa: Vudumedia.

Dokumentazioa eta ikus-entzunezko edizioa: Media Attack.

Laguntza teknikoa Zoom-ea: Media Attack, Leire Garcia, Joane Bilbao (ColaBoraBora) eta Manu Navarro (Komunikatik).

Ikerketa-taldeak: Encarna Hernandez (Novagob Fundazioa); Laia Forné eta Mauro Castro (La Hidra Kooperatiba); Iñaki Garcia eta Natalia Garcia (Erain).

Ikerketan honako hauek hartu dute parte:

Vicente Zapata (Comunidad); Raúl Oliván eta Carlos Oliván Villobas (Frena la Curva); Rosa Andreu (Xarxa Ciudadana).

Daniel Cruz eta Jordi Reynés (Makers); José Antonio Arroyo (Alimenta); Arnau Monterde eta Nil Homedes (Decidim); Martha Rodrigues eta Carme de la Madrid (Dones cosidores); Amanda Paz Araya (Xarxa de suport mutu).

Daniel García Blanco (San Diego Osasun Komunitarioaren Taldea); Mari Luz Casatorre eta Regina Heriz (Katearen Loturak); Mariasun Zubia eta Mabel García García (PSIKOBIZI); Sandra Candelas eta Cristina Martín (Cotidianas: Mujeres mayores con ganas de más); Beatriz Basterretxea, Karmele Barainka eta Gonzalo McGragh (COVID19 Ekintza Plana, Bilboko Udala).

Bherriaren 2021eko Topaketa urriaren 14an egin zen telematikoki.
<https://bherria.eus/topaketa-2021>

Dossier hau CC-BY-SA 4.0 lizentziapean argitaratuta dago —egungo bertsioa eta ondorengoak—, eta dossier horren banaketa askea ziurtatzen du, haren ondoriozko lanak modu askean erabiltzea ahalbidetzearekin batera, betiere iturria aipatzen eta lizentzia beraren pean partekatzen bada.

Txostena Bherria Topaketa 2021

www.bherria.eus/topaketa-2021

